2025IKTH0001 esped.

ARTXIBO MUGIKORRAK
EROSTEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

1. EDUKIA
1. KONTRATUAREN XEDEA.....
2. KOKAPENA ETA DISEINU-IRIZPIDE OROKORRAK.....
3. HORNITU BEHARREKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA ETA EZAUGARRIAK.....
4. HORNIDURAREN IRISMENA ETA BALDINTZAK.....
5. ESKAINITAKO PRODUKTUETARAKO IRIZPIDE OROKORRAK.....
6. MATERIALEN KALITATE TEKNIKOA ETA INGURUMEN-KALITATEA.....
7. PRODUKTUEN MATERIALEN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK.....
8. BETEBEHARRAK.....
9. DOKUMENTAZIO OSAGARRIA.....
10. BERME EPEA.....

2. ERANSKINAK
I. ERANSKINA: ARETOAREN PLANOA .....

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Lehiaketa honen xedea irizpide jasangarrien arabera, artxiboan erabiltzeko apalategi mugikorrak erostea da, hau da, artxibo gisa erabiltzeko egokitutako aretoan plataforma irristakorren gaineko apalategi mugikorrak.

2. KOKAPENA ETA DISEINU-IRIZPIDE OROKORRAK

Astigarragako Udal artxiboa Kontxa Etxeberria plaza 1ean eraikitako Erribera kulturgunean dago, S15 aretoan. Eraikina 2020an inauguratu zen eta artxiborako aurreikusitako aretoa Erribera kulturguneko sotoan dago. Aretoak 7,55 m x 8,76 mko azalera du, hiru zutabe, bi ate eta leiho gabea da. Argiztapen artifiziala eta bentilazio mekanikoak ditu.

Bi artxibo modulu mugikor erosi nahi dira, modulu bakoitza 6.720 luze ingurukoa, modulu bakoitza segidan adierazi bezala osatua:

1.- Apalategi finko bikoitz bat eta bi apalategi mugikor bikoitz.
2.- Apalategi finko bikoitz bat, bi apalategi mugikor bikoitz eta apalategi finko bikoitz bat.

Altzari mugikorrak izatea nahi da, apalategien arteko pasabideak saihestearekin edukiera ahalmena handitu eta dokumentazioa baldintza hobeagoetan gordetzeko. Lehiaketaren xede diren moduluen bidez, guztira, 120x390x275mm neurriko 3.000 artxibo kutxa inguru gordetzeko edukiera aurreikusten da.

3. HORNITU BEHARREKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA ETA EZAUGARRIAK

Apalategi mugikorren sistema erosi nahi da, plataforma irristakorren gainean muntatutako apalez osatua dagoena. Apalok trakzio-sistema jakin baten bidez mugitzen dira, lurzoruaren gaineko errail batzuetan zehar. Albo guztietan eta atzealdean itxitako moduluez osatuta egon behar du. Sistemak errailak, plataformak, artxibo apalategiak eta ertzak estaltzeko gomak izan behar ditu, eta alboetan profil seinaleztatzaileak jartzeko aukera izan behar du. Plataforma mugikorren artean junturak egon behar dira, gomazko juntura bertikalak eta sabaiko metalezko junturak.

Mugitzeko sistema mekanikoak moduluen mugimendua errazten du. Hala ere, multzo finko batzuk planteatzen dira, eremu espezifikoetan espazioa aprobetxatzeko.

Apalategiak modulagarriak izango dira, armairua iraultzea saihesteko eta haien mugimendua blokeatzeko sistema izango du, armairuen barruan norbait balego mugimendua eta zapaltzeko arriskua saihesteko.

Apalategiek metro linealeko 100 kg-ko gaitasuna izan behar dute, deformatu gabe.

Altzariak tiradadera, erretilu eta banatze sistemak izatea nahi da, dokumentuak modu eraginkorragoan antolatu eta sailkatzeko.

Agiriak segurtasunez gordetzeko armairuek blokeo sarraila izango dute bolantean, edo antzeko sistema, horren bidez artxiboa sarraila bidez itxi ahal izateko.

Sarraila dagoenetan, giltza indibidual bat jartzeko aukera emateaz gain, sarraila guztiak ireki ahal izateko giltza nagusi bat ere eduki beharko da.

Moduluek higrometroak izan beharko dituzte bertan gordetzen diren dokumentuak tenperatura eta hezetasun baldintza egokietan mantentzen direla ziurtatzeko.

Kolore aukera dagoenean udalak aukeratuko du.

4. HORNIDURAREN IRISMENA ETA BALDINTZAK

Esleipendunak konpromisoa hartzen du ekipamendu edota altzari guztiak tokian bertan instalatu eta erabiltzeko prest uzteko, eta horren barne daude horiek muntatu, finkatu, instalatu eta funtzionatzeko behar diren elementu guztiak.

Era berean, enpresa esleipenduna arduratuko da altzariak instalatu ondoren kendu behar diren enbalajeak eta tresnak desmuntatu, erretiratu eta zabortegira eramateaz, bere ardurapekoa izango da ere eginkizun horretarako erabili beharreko ibilgailu, kilometraje, zabortegi-tasa eta muntaketan eta instalazioan sortutako zikinkeria garbitzea ere.

Bilgarriei dagokienez, esleipendunak enbalajeen eta altzariak hornitu eta instalatzean sortutako beste edozein hondakinen azken kudeaketa egokia egiteko konpromisoa hartuko du, eta gutxienez sortutako hondakinen gaikako bilketa bermatu beharko du.

Elementu guztiak Udalak zehaztuko dituen lekuetan instalatuko dira, eta funtzionamendu-egoera ezin hobean geratu beharko dute.

5. ESKAINITAKO PRODUKTUETARAKO IRIZPIDE OROKORRAK

Ingurumenaren gaineko eragina murrizteko, altzariek eko-efizientziako irizpideak bete beharko dituzte, hala nola produktuaren osagaiak bereiztea ahalbidetzen duten osaketa izatea, produktuen bizitza baliagarriaren amaieran horiek berreskuratu eta berrerabiltzeko aukera izateko.

Horrek esan nahi du, eskaintzek akaberetan, neurrietan eta aukeretan moldagarritasuna izan beharko dutela.

6. MATERIALEN KALITATE TEKNIKOA ETA INGURUMEN-KALITATEA

Esleipendunek eskaintzen duten produktuen materialetan nahitaez bete beharreko zehaztapen tekniko hauek ezarri dira:

Funtzionaltasuna eta iraunkortasuna: hornitu eta instalatu beharreko ekipamenduaren iraunkortasunari begira, materialek erraz mantendu eta osagaiak berritzeko ezaugarriak izan behar dituzte. Produktuak gutxienez bi urteko bermea eta ordezko piezen erabilgarritasuna izan behar ditu. Eskainitako ereduak edo eredu bateragarriren batek, gutxienez 5 urtez merkatuan eskuragarri egon beharko du.

Mantentze-lanak: altzariak disolbatzaile organikoak dituzten garbiketa produktuak erabili gabe garbitu ahal izango dira. Horregatik, produktuen garbiketari eta mantentze lanei buruzko informazioa eman behar da.

Birziklatzea eta berrerabiltzea: Produktua osatzen duten materialak erraz bereiztu behar dira behar bezala birziklatzeko. Produktuaren erabiltzailearen eskuliburuak birziklatzeko eta berrerabiltzeko aukerak aipatu behar ditu.

Enbalajeak: enbalajeak material birziklagarriren batekin eginda egon behar du (papera/ kartoia, polietilenoa, polipropilenoa, poliestirenoa) eta ezin dira plastiko kloratuak erabili. Esleipendunak enbalajeen azken kudeaketa egokia egiteko konpromisoa hartuko du.

7. PRODUKTUEN MATERIALEN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Jarraian zehazten diren preskripzio teknikoak gutxieneko baldintzak dira eta horiek ez betetzeak eskaintza baztertzea ekarriko du. Hala ere, lizitatzaileek ezaugarri tekniko desberdinak eskaini ahal izango dituzte, baldin eta teknikoki baldintza agirian zehaztutakoen baliokideak direla behar bezala egiaztatzen badute.

Apalategi mugikorrek gutxienez indarrean dagoen suaren aurkako arautegia bete behar dute.

Ikusgai edo sisteman integratutako elementu guztiak altzairuz edo A1 edo A2 klaseko material erregaitzez eginda egon beharko dira.

Lizitatzaileak materialen sailkapenari buruzko entsegu ziurtagiria edo laborategi baten prestazioen adierazpena aurkeztu beharko du.

Apalategi mugikorrak altzairu laminatuz eginak izango dira eta guztien akabera termogogortutako hautsezko pinturaren bidez egingo da, disolbenterik gabe, berunik eta VI kromorik gabe eta REACH eta RoHS araudiak betez.

Margo, berniza eta bestelakoen osagaiak barne erabilerarako egokiak izan beharko dute, eta bertsio ekologikokoa edo, bestela, produktuaren ingurumen adierazpena edo ingurumen inpaktua murriztu dela eta substantzia arriskutsurik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentazio baliokidea eduki ahal izango du.

Estaldurak gutxienez 60 mikrometro lodiera izango du, korrosibotasun txikiko barne inguruneetan korrosioaren aurkako babes egokia bermatzeko.

Elementu mugikorrek galbanizatuta edo tratatutako altzairuz fabrikatuta egon behar dute, oxidazionarekiko iraunkortasuna bermatzeko. Epoxi pinturaz edo poliester termogogortu bidez babestuta egongo dira. Gutxienez 50-70 mikrako lodiera izango dute, eta egokia izango da korrosibotasun txikiko barne-giroetarako. Elementu mugikorrak oxidazioaren aurrean galbanizatuta edo tratatuta egongo dira.

8. BETEBEHARRAK

Esleipendunak altzariak hornitu eta muntatu behar ditu. Artxibo mugikorra aretoaren neurri eta ezaugarrietara egokitu behar da, beraz, neurriak in situ egin beharreko neurketen bidez egiaztatu beharko dira.

Lizitatzaileak irudi bidez diseinuaren proposamen bat egin beharko du. Bere proposamenak aretora egokitutako altzari elementuen ezaugarriak eta neurriak jasoko ditu.
Aretoa bisitatzeko aukera izango da, aurrez telefonoz deitu (943335064) eta hitzordua hartuta.

9. DOKUMENTAZIO OSAGARRIA

Esleipendunak, hornidura einstalatu ondoren, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:
- Berme-ziurtagiriak.
- Beharrezkoa den altzarien kasuan, suarekiko erresistentziaren ziurtagiriak.
- Elementu bakoitzarekin mantentze-lanen eskuliburua, garbiketa, koipeztatzea behar denean eta osagai mugikorrek berrikusketaren inguruko gomendioekin: maiztasuna, erabili beharreko tresna edo erremintak eta erabili beharreko produktuei buruzkoak:

10. BERME-EPEA

Esleipenduna hornitutako produktuen kalitatearen eta horiek behar bezala instalatzeko lanen erantzule izango da, eta horietako bakoitzak bi urteko berme epean eskatu ohi diren ohiko ezaugarriak bete beharko ditu; epea hornigaiak jasotzeko akta egiten den egunetik hasita zenbatuko da.
Epe horretan, esleipendunak hornitutako altzari eta elementu guzti-guztien beharrezko elementu guztiak birjarri beharko ditu, baldin eta irregulartasunak badituzte, izan sortze, fabrikatze edo instalazio akatsen ondorio.
Berme barruan egindako aldaketa eta konponketak inongo kargurik gabe izango dira.
Esleipendunak (eta/edo haren hornitzaileek) formalki hitz emango du instalatutako altzarien ordezko piezak izango dituela altzaria instalatu eta gutxienez bost urtera.
Lan bermea ez da azpikontratatuko beste zerbitzu konpainia batekin jabetzaren idatzizko baimenik gabe. Berme-aldian pieza, zati edo elementuren batek hiru aldiz baino gehiagotan huts egiten badu, diseinuan, fabrikazioan edo muntaketa akatsen bat duela ulertuko da, eta inolako kargurik gabe ordezkatu beharko da kokatuta dagoen leku guztietan.